

ZER DIRA DIRU SARRERAK?

Diru sarrerek enpresan sartzen den diruari egiten dio erreferentzia. Diru sarreren kudeaketa on batek etekinak lortzea ahalbidetu dezake.

Diru-sarrerak sortzeko modu anitzak dauzka enpresa batek: Aktiboen salmenta, erabileragatiko saria, harpidetzagatiko saria, mailegua, rentinga eta alokairua, lizentziak, broker edo komisio bidezko sariak eta publizitatea.

GURE ELKARTEAREN DIRU ITURRIAK:

Gure elkartearen kasuan, ekarpenak eta diru laguntzak dira gure diru-iturri nagusia. Ekarpenak hainbat lekuetatik jasotzen ditugu:

Alde batetik, elkarte publikoetatik jasotzen ditugu. Hala nola, Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenak edo Gasteizko edo Euskal Herriko hainbat erakunde feministak.

Bestetik, enpresa pribatuak ere haien ekarpenak egiten dituzte, adibidez, gurekin kolaboratzen dituzten enpresak (Adidas, ColaCao...) eta beste hainbat enpresa batzuetan ekarpenak egiten dituztenak.

Gainera, familiak indibidualki ere donazioak edo ekarpenak egiten dituzte gure enpresari, pentsatzen dugulako, gure ideiekin bat datozen familiek, modu honetan edo bestean laguntzea garrantzitsua dela, alde batetik, guri onurak ekartzen dizkigulako materiala erosteko, ekintzak antolatzeko... Eta bestetik, familiek gure elkartean parte hartzeko modu bat delako.

Gure elkarteak antolatzen dituen hainbat ekintzetatik ere dirua ateratzen du. Hala nola, udako barnetegiak edo antolatzen ditugun jaiak, festibalak edo kontzertuak dirua ateratzeko

beste gune bat dira. Ekitaldi hauetan ateratzen ditugun etekinen erdia elkaratearentzat da (beste hizketaldiak prestatzeko, materiala erosteko...) eta beste erdia langileen soldatak ordaintzeko erabiltzen da.

Gainera, gure elkarte diru sarrerak ateratzeko erabiltzen duen beste metodo bat, ekintzetan, festibaletan, antolatutako ekintzetan... Postu batzuk antolatzen ditugu, non, kamisetak, sudaderak, prakak, motzak eta luzeak, galtzerdiak, buffak, motxilak ekipazioak gordetzeko eta telazko boltsak gure logoarekin saltzen ditugu. Ekipazio osoa saltzen dugu gure elkaratearen publizitatea egiteko, eta dirua ateratzeko beste era ona delako. Kirolean aritzeko arropa oso garrantzitsua da, aktibitate fisikoa egiteko askoz erosoagoa delako.

GURE ELKARTEAREN diru sarrerak:

Aurretik azaldu dugun bezala, gure elkaratearen kasuan, hainbat modu ezberdinetatik ateratzen dugu gure diru iturriak. Orain azalduko duguna da zenbat etekin lortzen dugun gure diru iturri bakoitzetik hilabetero gutxi gorabehera, donazioak ez direlako berdinak hilabete bakoitzean eta donazio gehiago edo gutxiago izan ditzakegu hilabete bakoitzeko.

Diru Iturria	Diru Kantitatea (€)	Urteko Irabaziak (€)
Eusko Jaurlaritzak	450€	5.400€
AMPEA (asoziazio feminista)	200€	2400€
Asamblea de Mujeres de Álava	180€	2.160€
Emakunde	150€	1.800€
AMAR Kolektiba Feministak	230€	2.760€
Cola Cao	120€	1.440€
Leche Asturiana	250€	3.000€
Michelin	700€	8.400€

Kaiku	200€	2.400€
Mercedes	1000€	12.000€
Familien donazioak	10-50€	120-600€
Barnetegiak	420 €(pertsona bakoitzeko)	25.200€
Festibalak	300€ x 5 emanaldi	1.500€
Antolatzen ditugun postuak	600-800€	7.200-9.600€

Diru Iturrien Totalak

-	-	76.910€
---	---	---------

Hilabetero jasotzen ditugu Euskaltzaindiaren eta hainbat asoziazio feministen ekarpenak gure asoziazioan. **Eusko Jaurlaritzak** 450€ ematen digu hilabetean eta **AMPEA** asoziazio feministak 200€ ko donazioak, **Asamblea de Mujeres de Álava** asoziazioak 180€ ko donazioak, **Emakunde** asoziazio feministak 150€ hilabetero eta **AMAR Kolektiba Feministak** 230€ ko donazioak ematen dizkugute hilabetero.

Gurekin lan egiten duten enpresek (**Cola Cao, Halabedi, Leche Asturiana...**), hainbat ekarpen egiten dituzte hilabetero. **Cola Cao** 120€ ko donazioak egiten ditu hilabetero , **Adidas** 500€ ko donazioak ematen dizkigu hilabetero , **Leche Asturiana** 250€ ko donazioak ematen dizkigu hilabetero behin,**Kaikuk** 200€ ko donazioak hilabetean behin, **Michelinek** 700€ ko donazioak egiten ditu hilabetero eta **Mercedesek** 1000€ ko donazioak egiten ditu hilabetero. Azkeneko bi hauek diru gehiago ematen dute, gure xedea Gaisteizen baitago eta erakundearen sortzaileak Gasteizkoak baitira.

Gure asoziazioan , familiek paper garrantzitsu bat betetzen dute eta haiek beste enpresa eta asoziazioen bezala, ekarpenak egiten dituzte. Normalean ekarpen hauek oso ezberdinak izaten dira urtero. Urtean zehar familiek egiten dituzten ekarpenetatik lortzen dugun etekinak 120-600€ artean izaten dira urtero. Donazio indibidual bakoitzak 10-50€ artean egoten da normalean.

Asoziazioan erabiltzen dugun beste modu bat etekinak ateratzeko, antolatzen ditugun barnetegietan, jailetan, festibaletan eta kontzertuetan ateratzen dugun etekinak dira, aurretik azaldu dugun bezala. Urtean lau barnetegi prestatzen ditugu, bi udan eta beste bi neguan eta haietatik ateratzen dugun etekinak 30.400€ izaten da normalean (420€ pertsona bakoitzeko). Beste ekintzetatik ateratzen dugun etekinak aldakorrak izaten dira, jendearen arabera, eguraldiaren arabera eta hainbat gauzen menpe egoten direlako orokorrean festibalak, baina normalean festibaletatik atertzen dugun etekinak 300€ izaten dira eta 5 festibal egiten ditugu normalean urtean zehar.

Azkenik, festibaletan etekinak ateratzeko beste modu bat dauka gure elkarteak. Antolatzen ditugun kontzertuetan, beti postu txiki batzuk antolatzen ditugu non gure asoziazioaren publizitatea egiteko, kirola egiteko ekipazio arropa saltzen dugun. Etekin hauek, aldakorrak dira baita ere beti ez duelako beti erosten jende kopuru berdinak, baina orokorrean postuekin lortzen dugun etekinak 600-800€ artekoak izaten dira festibal bakoitzean.

DIRU-ITURRIEN TOTALA.

Diru iturrien totala urtero, aurreko taulan jarri dugun bezala, 76.910€ koak dira.